



24/2003 GOMENDIOA, IRAILAREN 9KOA, DONOSTIAKO UDALARI EGINA, UDALTZAINGOAK OFIZIOZ BARNEKO IKERKETAK HAS DITZAN HORRETARAKO BIDEZKO ARRAZOIAK DAUDEN ALDI GUZTIETAN, ETA BERE JARDUERARI BURUZKO DATUAK BERE ZERBITZUAREN KALITATEA NEURTZEKO ETA BALIOZTATZEKO ERABIL DITZAN.

Aurrekariak

1. Kexagileek erakunde honetara jo zuten, herri horretako Udaltzaingoko kide batzuek eman zieten tratu -beren ustez- desegokia salatzeke.

Honela labur daitezke kaltetuek azaldu zizkiguten gertakariak: 2002ko abuztuaren 13an, ustez oker aparkatzeagatik bi udaltzaini isun bat ordaindu ondoren, bere ibilgailuarekin abiatzen saiatu zirenean, gidariak atzean zegoen motor bat jo zuen azaletik; polizi funtzionarioek ez zuten motorrari buruz ezer adierazi. Kexagileak bazihoazenean, udaltzainei beharrezko agiri eta datu guztiak eman eta gero, udaltzainek esan zieten motorraren jabea agertu arte itxaron behar zutela. Agindu hori bidegabea eta neurritz gainekoa iruditu zitzaenez gero, lanbide-identifikazioa eskatu zieten udaltzainei.

Interesdunek adierazi digutenez, une hartatik aurrera udaltzainek nagusikeriazko eta indarkeriazko jarrera erakutsi zuten. Haien esanean, (...) jauna -60 urtekoa- lurrera bota zuten, jo, betaurrekorik gabe utzi..., (...) andrea eraso hura eragozten saiatu eta oihu egiten zuen bitartean, oinezkoen arreta erakartzeko. Azkenean, bi kexagileak polizia-etxera eraman zituzten, eta han bost ordu inguru atxilotuta egon ziren. Azaldu dutenez, behin eta berriz eskatu zuten arren, ez zuten jakiterik izan zer leporatzen zitzairen, ez zieten polizia-etxeko arduradunarekin hitz egiten utzi, ez zuten beren ezagunekin komunikatzerik izan eta ez zieten ezein agiriren kopiarik eman.

2. Polizia-etxeetara aldizka egin ohi ditugun ikustaldietako batean, kexa-espeditente hau eragin zuten egintzei zegokien argiketaren kopia bat lortu genuen, eta horrela jakin genuen kexagileei atentatu delitua leporatzen zitzaizela. Epaitegien iritziaren mende jarritako gaiak aztertzen hasi gabe, erakunde honek kexarekin zerikusia zuten beste alderdi batzuei buruzko argibideak eskatu zituen. Hauexek, hain zuzen:



- a. Zein jarraibide dauden polizi jarduera batean nahastutako pertsonen lanbide-identifikazioa eman beharraz.
 - b. Zertan oinarritzen den kalteak jasandako motorraren jabeari itxaroteko eskaera.
 - c. Ea bazekiten nor zen udaltzainen eta atxilotuen artean, itxura denez, nolabaiteko bitartekari-lana egin zuen herritarra.
 - d. Ea kexa hau sortarazi duen atxiloketan esku hartu zuten udaltzainei alde aurretiko informazioen espedienterik ireki zaien.
3. Komisario nagusiaren erantzun laburrean honako argibideok eman zizkiguten:
- a. Udaltzaingoaren kideek zenbait jarraibide dituzte, beren lanbide-identifikazioaren zenbakia herritarrari eman beharraz.
 - b. Poliziaren jarduera osoagoa izaten da istripu batean nahastutako aldeak tokian bertan egoten direnean; baina, kasu honetan, argiketan gertakariez egin den kontakizunaren arabera, ez dirudi egintzak gertatu ziren tokian bigarren gidaria identifikatu zenik.
 - c. Udaltzaingoak ez zekien nor zen kexagileen eta udaltzainen artean - kexagileek diotenez- nolabaiteko bitartekari-lana egin zuen herritarra.
 - d. Ez zen bidezkozat jo egintzetan esku hartu zuten udaltzainei alde aurretiko informazioen espedientea irekitzea, arrazoi honengatik: *"por cuanto del atestado policial no se deduce la existencia de posible infracción alguna"*.

Lehen hiru puntuetan aipatutako informazioak kontrastatzeko kexagileen argibide batzuk behar genituenez gero, eskatu egin genizkien, baina, haien zain geunden bitartean, bidezkoa iruditu zitzaigun Udaltzaingoari laugarren puntuari buruzko informazio zabalagoa eskatzea. Horregatik, 2003-03-20ko idazkian, laugarren puntu hori bakarrrik jorratu genuen, batik bat bi alderditan oinarrituz:

Alde batetik, zera azaldu genuen: argiketan polizi jarduerari dagokion irregulartasunik jasota ez badago ere -hori normala da, agiri horretan egintzez agertzen den bertsioa egintzetan esku hartu zuten udaltzainena berena baita,-



erakunde honen ustez, polizi arduradunek barneko ikerketa bat hasi beharra daukate, funtzionarioek agian legez kontra jokatu dutela jakiten badute. Kasu honetan agerikoa da Udaltzaingoak jakin zuela kexagileek egindako salaketaren berri, bai behintzat Arartekoak jasotako kexa helarazi zionean. Horregatik, bidezkoa izango zatekeen orduantxe aurretiaz informatzeko izapideak hastea, halakorik lehenago egin ez bazen.

Bestalde, erakunde honek *Bilboko San Frantzisko aldean atzerritarrekin burututako jarduera polizialei buruz Arartekoak izandako esku-hartzea* deritzan txostenean egindako gomendio bat aipatu zuen berriro (kontrolatu egin beharko litzateke, alde batetik, zenbat barne-espeditente zabaltzen zaizkien agenteei ustez oker jokatu izanagatik; eta bestetik, atentatu, kontra egite, ez obeditze edo agintaritzaren agenteei errespeturik ez erakusteagatik leporatutako delitu edo hutsegiteei buruzko zenbat argiketatan egon diren nahastuta polizi funtzionarioak), eta horren gaineko informazioa eskatu genuen.

4. Erantzun-idazkian (2003-05-15ekoa), komisario nagusiak berriz ere adierazi zigun argiketatik ez zela ondorioztatzen lege-hauste deontologikorik gertatu zenik, nahiz eta, argiketa hartan, egintzekin zerikusirik ez zuen lekuko baten deklarazioa ere jasota zegoen. Ildo berean, erakunde honek azaldu zion beste adibide bati buruz -Udaltzaingoaren jarduera batez prentsan agertutako kexa bat- polizi arduradunak "*idazki anonimo*"tzat jo zuen, ez barneko ikerketa bat oinarritzeko behar bestekoa.

Beste alde batetik, 2002 urtean agenteei zenbat diziplina-espeditente ireki zitzaizkien adierazi zigun, eta agintaritzaren agenteen kontrako delituei buruzko zenbat argiketatan hartu zuten parte agenteek salatzaile gisa.

Horrez gain, komisario nagusiak emandako lehen erantzunari dagokionez, kexagileen argibide batzuk ere jaso ditugu erakunde honetan. Honela labur daitezke:

- a. Beraiek eskatu eta gero, udaltzainetako batek bere identifikazio zenbakia idazten utzi zien, baina besteak, gazteagoak, bere plaka erakusteko plantak egin zituen, baina eskuaz estali zuen zenbakia, irakurtzea galaraziz. (...) jaunak lehenbiziko datua idatzi zueneko papera desagertu egin zen, berorrek salatutako bultzadak eta erorketa gertatu zirenean.



- b. Behin eta berriz adierazi dute udaltzainei agiri guztiak eman eta abiatzera zihoazenean, udaltzainek ez zietela joaten utzi, motorraren jabeari itxaron behar omen zioten-eta. Hura zentzugabea iruditu zitzairen, ez baitzekiten jabea noiz itzuliko zen.
- c. Berrogeita hamar bat urteko gizon batek, frantsesez ondotxo moldatzen baitzen, udaltzainekin hitz egin omen zuen, haiek lasaitu zitezen, eta kexagilea polizia-etxera joateko konbentzitu omen zuen. (...) andreak sarritan adierazi duenez, berak bere borondatez lagundu zion kexagileari poliziaren autoan, inork halakorik eskatu ez bazion ere -horrexegatik ez du ulertzen zergatik atxilotu zuten gero-, eta aipatu herritarra ere beraiekin joan zen auto ofizialean, polizia-etxeraino.

Polizia-etxera iritsitakoan, udaltzain emakumeen eta udaltzain zaharrenen portaera guztiz bestelakoa izan omen zen -haiek zuzen bete omen zuten beren egitekoa-, ez baitzuen zerikusirik izan atxiloketan esku hartu zuten udaltzain gazteen portaera desatsegin eta erasokorrarekin.

Gogoetak

1. Lehendabizi, artean kexagileen argibiderik ez genuelako gure aurreko idazkian aipatu gabe utzi genituen hiru gai horiek aztertuko ditugu. Horiei guztiei buruz, nabarmenak dira poliziaren bertsioaren eta kexagileenaren arteko ezberdintasunak. Hasiera batean, erakunde honek ez dauka oinarririk bi aldeetatik bati besteari baino sinesgarritasun handiagoa emateko, baina agerian jarri behar dugu kexagileen bertsioa sinesgarria dela, bereziki egintzen geroko bilakaera osoa sortarazi zuen xehetasunari dagokionez. Izan ere, beraiek diotenez -eta ibilgailuan zeuden beste bi pertsonak egiazta dezaketela ziurtatzen dute-, gidariak bere agiriak eta autoarenak eman zizkien udaltzainei, eta hori egin ondoren esan zieten han geratu behar zutela, motorraren jabearen zain. Agindu horrek -itxuragabea iruditu zitzaielako- haserretu egin zituela onartzen dute, eta horregatik eskatu zietela udaltzainei beren identifikazioa.

Argiketean ez dago idatzita kolpea jasandako motorraren jabea azaldu arte benetan itxaron zuten -atxiloketak eragotzi zuen hori-, eta udaltzainek ere ez dute aipatzen eskaera hori beren deklarazioan. Haatik, udaltzainek beste egintza batzuk ere isildu dituzte, beraien kalterako ez izanik ere, beren bertsioarekin neurri batean bat etorriko ez liratekeenak, hala nola, kexagileek



lanbide-identifikazioa eskatu zietela udaltzainei eta haietako batek eman egin ziela.

Edonola, erakunde honek ez dauka poliziaren jardueraz iritzi bat emateko ezaupiderik; zehazki, ez daki udaltzainek gidaria han gerarazi nahi izan zuten motorraren jabea agertu artean, ezta ere funtzionario gazteenak kexagileei plakaren zenbakia erakutsi zien ala ez. Horregatik, berriro adierazi behar dugu komenigarria dela polizi arduradunek Udaltzaingoaren kideei beraien lanbide-identifikazioa eman behar dutela gogoraraztea polizi jarduera batean nahasturiko pertsona batek hala eskatzen duenean, eta debekatua dagoela udaltzainek beren egitekoa betetzeko beharrezkoa den baino gehiago mugatzea herritarren askatasuna.

Bestalde, ez zuten identifikatu, eta argiketari idatziz jaso ere ez zuten egin frantsesez mintzo zen pertsona batek eztabaidan esku hartu zuela eta atxilotuei lagundu ziela polizien autoan; ahazte hori, gure iritziz, aski garrantzitsua da, gertatutakoa argitzen lagun zezakeen lekukotza bat eskatzea eragotzi baitu.

2. Udaltzaingoak eman dizkigun zenbakizko datuek ere hainbat ohar egitea merezi dute:

2002 urtean hasitako diziplina-espeditenteei buruz, deigarria da hain gutxi izatea eta, itxuraz, horietako bakar bat ere ez izatea herritarren kexen ondoriozkoa (lehenengoaren jatorririk ez dugula ezagutzen argitu behar dugu). Hala ere, Arartekoak jakin badaki kexaren bat izan dela.

Agintaritzaren agenteen kontrako lege-hausteei buruzko argiketak direla-eta, horietan esku hartu duten funtzionarioen zerrenda agertzen da; zerrenda egitea eskertzeaz gain -ziur asko neketsua izango baitzen-, azpimarratu nahi dugu zerrenda hori eratzeko irizpidea ez dela oso argia. Egiaz, oso datu gutxi ditugun arren, hainbat "ez aipatze" aurkitu ditugu. Horrela, adibidez, kexa hau sortarazi duen kasuan esku-hartze garrantzitsua du (...) zenbakiko udaltzainak; bere lanbide-zenbakiagatik, baliteke udaltzain hori kexagileek nagusikeriazko eta errespeturik ezako portaera leporatu zioten "udaltzain gaztea" izatea. Hala ere, hura ez da agertzen eskuratu diguten funtzionarioen zerrendan.

Orobat, (...) argiketari [(...) zenbakidun kexa-espeditentea], nahiz eta kexagileak bost edo sei agente salatu zituen, eta argiketari kaltetu gisa bost agertzen ziren,



guri eskuratutako zerrendan horietatik bi bakarrik aipatzen dira, izapideak hasi zirenean agertu ziren bi agenteak diren arren.

Dena den, argitu behar dugu ez dagokiola erakunde honi lortutako datuak aztertzea. Egindako zerrenda hori barne-kontrolerako tresna bat da, polizi jarduera batzuk neurtzeko baliagarria gerta daitekeena. Horrela ikusten da, esate baterako, zenbait agentek urte batean lau bider baino gehiagotan salatu edota atxilotu dutela norbait atentatuagatik, eta kasu batean, zazpi bider. Horrelako delituengatik salaketak behin eta berriz jartzeak zera adieraz dezake, agian: halako agente batek ez dakiela egoera batzuk kontrolatzen atxilotzeko duen ahalmena erabili gabe. Jakina, zantzu hori beste batzuekin kontrastatu beharko dute polizi arduradunek, baina -erakunde honen ustez- ez da inolaz ere alde batera edo aztertzeke utzi behar.

3. Azkenik, komisario nagusiaren erabakia aipatu behar dugu, izan ere, polizi jarduerari buruzko barneko ikerketarik ez egitea erabaki zuen, kexa bat azaldu zela jakin arren.

Erakunde honek sarritan adierazi du poliziaren gehiegikeriak galarazteko lehen urratsa gehiegikeria horiek izan daitezkeela onartzea dela. Ildo horretan, kexa bat jasotzean aldeztu aurretik informazioen espedientea irekitzeak ez du esan nahi, ezinbestean, kexari sinesgarritasun osoa ematen zaionik, ezta ere udaltzainen profesionaltasunaz etengabeko susmoa ezarriko denik. Aldiz, polizi arduradunek beharrezkoa den prebentziozko lana egiten dutela eta, aldi berean, polizi lanaren alderdi kualitatiboak aintzat hartzen dituztela esan nahi du. Hori baino ez.

Bestalde, Arartekoa ez da ofizioz edo interesdunak eskatuta barneko ikerketak egin behar direla dioen erakunde eskubide-bermatzaile bakarra. Esaterako, Nazio Batuen Torturaren kontrako Batzordeak 1998-05-14an emandako irizpena aipa daiteke, bere garaian senarrarekin batera atxilotu zuten emakume euskaldun batek aurkeztutako salaketari buruzkoa. Irizpen horrek, zera dio 8.2. atalean:

"El Comité observa que, con arreglo al artículo 12 de la Convención, las autoridades tienen la obligación de iniciar una investigación ex officio, siempre que haya motivos razonables para creer que actos de tortura o malos tratos han sido cometidos, sin que tenga mayor relevancia el origen



de la sospecha. El artículo 12 requiere igualmente que la investigación sea pronta e imparcial."

Kasu hartan aztertutako egintzak kexa-espedita hau eragin dutenekin erkatzerik ez badago ere, polizi arduradunen jarrerak berbera izan behar du, batik bat balizko jokaera okerra salatzeke erabiltzen den bidetari garrantzia ukatzeari dagokionez. Horrela, ezin gara ados egon komisario nagusiak emandako azalpenekin, Donostiako biztanle batek udaltzain baten jokaera salatuz prentsan argitaratu zuen gutunari ez erantzuteari buruz. Komisario nagusiak dioenez, "idazki anonimoa" zen -prentsan agertutako izena agian ez zen bat etorriko gidari zigortuaren izenarekin, hori pentsatu dugu behintzat- eta, haren ustez, administrazioaren aurrean formalki aurkeztutako kexek bakarrik merezi dute ikerketaren bat egitea.

Gure ikuspuntutik, ordea, poliziaren balizko jokaera bidegabe bat aipatzen duen edozein berri ikertu beharra dago, berdin diolarik polizi arduradunek zein bidetatik jakiten duten berri hura. Beste kontu bat da barneko ikerketa horrek zein ezaugarri izan behar dituen; ezaugarriok salatutako irregulartasunaren garrantziaren arabera izan beharko dute, noski.

Laburbilduz, gure iritzian, poliziaren zerbitzuaren kalitatea neurtu behar da, eta hori egiteko, ezinbestekoa da zerbitzu horren arduradunak herritarren kexak jasotzeko prest egotea. Gainera, kexa horiek aintzat hartze hutsarekin, lortzea komeni den ondorio prebentiboa lortuko litzateke. Begi-bistakoa da hori.

Horregatik guztiatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

24/2003 GOMENDIOA, Donostiako udalari egina

- a. Herri horretako Udaltzaingoak barneko ikerketa bat hasi behar du ofizioz, poliziaren jokaera bidegabe bat izan dela pentsarazten duen bidezko arrazoirik dagoen aldi guztietan. Horrela, herritarrek egindako kexak edo salaketak, edozein bidetatik datozela ere, lehen adierazgarri edo seinaleztat hartu behar dira, beti ikertu behar dira, eta ez dira erabat gaitzetsi behar. Aurretiaz informatzeko izapideak hasiko dira, nahiz eta, egintzak prozedura penal batean aztertzen badira, izapideok bertan behera utziko diren.



- b. Aurrerantzean, Udaltzaingoak polizi zerbitzuaren kalitatea zaindu eta neurtzeko tresnatzat erabiliko ditu honako datuok: polizi jarduera baten ondorioz sortutako liskarreatatik egiten diren atxiloten kopurua; horrelako lege-hauste penalengatik egindako argiketetan, udaltzainak sarri agertzen diren ala ez salatzaile gisa; polizien jarduerengatik zenbat kexa jaso diren, e.a.